



Kudeaketa Aurreratuaren Europako 22. Astea, Sarearen Laguntzaile den EUSKALITek antolatuta.

2016ko azaroaren 9a

Red denBBora Sareak lehendabiziko aldiz aurkeztu zuen bere ekimena EUSKALITek duela 20 urte baino gehiagotik hona sustatzen dituen hausnarketa eta esperientzia-trukaketarako espazio ezberdinetan. Espazio horiek komunitatearen ehundura sozioekonomikoari zuzenduta daude, Bikaintasunaren eta Kudeaketa Aurreratuaren esparruan enpresa-kudeaketa sustatzeko helburuz.



Ekimen honen sustatzaile diren Instituzio biek (Bilboko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia) 2013 urte bukaeran martxan jarritako Sarearen helburuen berri eman zuten, baita unera arteko balantzearen berri ere.

Era berean, Sareari atxikita dauden lau enpresak (EMTESPORT, INGETEAM, TORREZURI y VIRTUAL WARE) Enpresa Berrikuntzaren esparruan denboren erabilerari dagokionez dituzten praktika egokien gaineko informazioa partekatu zuten, EUSKALITek sustatzen duen Kudeaketa Aurreratuaren eredu barruan PERTSONEN ardatzean elementu estrategiko gisa.

Erakunde antolatzaileak jasotako ebaluazioen arabera, bertaratutako pertsonen kopurua zein jasotako iruzkinak kontuan hartuta, esperientzia oso positiboa izan zen.

SAIOAREN EGITARAUA

ASTEKO LELOA: "BALIOAK ETA KUDEAKETA AURRERATUA LEHIAKORTASUNAREN ALDE"

DENBBORAREN PARTE-HARTZEA: Azaroak 9: PERTSONAK

AURKEZPENAREN EGITURA

IZENBURUA: *Denboren erabilera lehiakortasun-elementu gisa*

- SAREaren Aurkezpena: helburuak eta aurreikusitako inpaktua.
- Esperientzien aurkezpena eta eztabaida parte-hartzailea.

Red denBBora Sarean parte hartzen duten eta, ikuspegi parte-hartzaile eta lehiakorrean oinarrituta, denboraren erabilera enpresako PERTSONETAN zentratuta lantzen duten ENPRESEN aurkezpena:

1. INGETEAM
2. VIRTUAL WARE
3. ARTECHE
4. TORREZURI

Eztabaida eta dinamizazioa MURGIBEren eskutik, Sarearen idazkaritza Teknikoa eta enpresa atxikia.



*BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (Cristina Sarduy)
eta BILBOKO UDALA (Amaya Domingo)*



*VIRTUALWARE INGETEAM TORREZURI EMTESPORT eta
MURGIBE*